BILBOKO UDALA AYUNTAMIENTO DE BILBAO | **Prentsa Kabinetea** Gabinete de Prensa | Erkoreka Plaza, 1 48007 Bilbao
Tel. 94 420 52 61 / 94 420 52 94 / 94 420 35 19 / 94 420 59 93 / 94 420 30 93 | Fax: 94 420 52 16 | prensa@alcaldia.bilbao.eus | www.bilbao.eus

BILBOKO UDALAK "EMAKUMEEN ETXEA" JARRIKO DU ATXURIKO ANTZINAKO OLLERIETAKO ESKOLEN ERAIKINEAN

- **Andrazkoei zuzendutako partaidetza-espazio berri honek hiru helburu nagusi ditu: proiektu estrategikoa eta erreferentea izatea urian benetako berdintasunean aurrera egiteko, indarkeria matxista desagerraraztea eta emakumeen ahalduntze indibiduala eta kolektiboa sustatzea.**

(Bilbon, 2024ko ekainaren 25ean).- Bilboko Udalak **uriko lehen Emakumeen Etxea** izango du agintaldi honetan. Emakumeei zuzendutako partaidetza-espazio horretarako, **Atxuri auzoko** Atxuri kaleko 45. zenbakian dagoen **udal-eraikina** aukeratu da, **Ollerietako eskolak hartu zituena**. Hala jakinarazi zaie gaur arratsaldean bertan **Emakumeen Udal Kontseilua** osatzen duten elkarteetako ordezkariei.

Bilboko gune feminista berri horren proiektu arkitektonikoa **Obra Publikoetako eta Zerbitzuetako eta Berdintasun** sailen artean definituko da, eta **Kontseiluaren barruko Lan Batzorde espezifikoan** parte hartzen duten emakume-elkarteen laguntza izango du, **baita uriko auzoetako beste talde eta erreferente feminista batzuena ere**.

Eraikin hori egokitzearekin batera, Udalak modu parte-hartzailean zehaztuko du azpiegitura berri horren **Jarduketa Plana** (helburuak, zerbitzuak, ekimenak, funtzionamendua...).

Udalak Emakumeen Etxe berri hau abian jarriko du Bizkaiko uriburuan, hiru helburu nagusirekin: **proiektu estrategikoa eta erreferentea izatea urian benetako berdintasunean aurrera egiteko, indarkeria matxista desagerraraztea eta emakumeen ahalduntze indibiduala eta kolektiboa sustatzea**.

Azken urteotan, Udalak azpiegitura feminista horren garapenean lan egin du. 2020an Euskadiko emakumeen etxeen errealitateari buruzko azterlana egin zuen, Bilboko udalerriaren errealitatera egokitutako ahalduntze-espazio bat abian jartzeko. Era berean, 2022an, parte-hartze bidezko prozesua garatu zuen, Bilboko andrazkoek parte-hartzea bultzatzen duten espazio eta jarduketei buruz zer iritzi zeukaten jakiteko.

SARE SOZIALAK:

- **BILBAO UDALA**: YOUTUBE | FACEBOOK | X | INSTAGRAM | TIK TOK
- **BILBAO BERDINTASUNA**: FACEBOOK | TWITTER

EL AYUNTAMIENTO DE BILBAO UBICARÁ "LA CASA DE LAS MUJERES" EN EL EDIFICIO DE LAS ANTIGUAS ESCUELAS DE OLLERÍAS EN ATXURI

- **Este nuevo espacio de participación dirigido a las Mujeres nace con tres objetivos principales: ser proyecto estratégico y referente en la Villa para avanzar en la igualdad real, erradicar la violencia machista y promover el empoderamiento individual y colectivo de las mujeres.**

(Bilbao, a 25 de junio de 2024).- El Ayuntamiento de Bilbao en este mandato contará con la **primera Casa de las Mujeres en la ciudad.** La ubicación elegida para este espacio de participación dirigido a las mujeres en la Villa ha sido el **edificio municipal que albergó las escuelas de Ollerías, situado en el barrio de Atxuri,** en la calle Atxuri, 45. Así se ha comunicado, esta misma tarde, a las representantes de las asociaciones que forman parte del **Consejo Municipal de Mujeres.**

El proyecto arquitectónico de este nuevo emplazamiento feminista de Bilbao será definido entre las áreas de **Obras Públicas y Servicios e Igualdad**, y, contará con la colaboración de las asociaciones de mujeres que participan en la **Comisión de Trabajo específica en el seno Consejo**, así como de **otros grupos y referentes feministas de los diferentes barrios de la Villa.**

Al mismo tiempo que se adecua este inmueble, el Ayuntamiento definirá de forma participada también el **Plan de Actuación** (objetivos, servicios, iniciativas, funcionamiento…) de esta nueva infraestructura.

El Consistorio pone en marcha esta nueva Casa de las Mujeres en la capital vizcaina con tres objetivos principales: **ser proyecto estratégico y referente en la Villa para avanzar en la igualdad real, erradicar la violencia machista y promover el empoderamiento individual y colectivo de las mujeres.**

En los últimos años, el Ayuntamiento ha trabajado en el desarrollo de esta infraestructura feminista. En 2020 realizó un estudio sobre la realidad de las casas de las mujeres en Euskadi con el fin de poner en marcha un espacio de empoderamiento ajustado a la realidad del municipio bilbaino. Asimismo, en 2022 desarrolló un proceso participativo cuyo objetivo fue conocer la opinión de las bilbainas sobre espacios y actuaciones que favorecen la participación de mujeres.

REDES SOCIALES:

- **BILBAO UDALA**: YOUTUBE | FACEBOOK | X | INSTAGRAM | TIK TOK
- **BILBAO BERDINTASUNA**: FACEBOOK | TWITTER